



# ZARATAMOKO UDALAREN INFORMAZIO-ORRIA



1 zenbakia  
2012ko uztaila

## ZARATAMOKO UDALAREN EGOERA EKONOMIKOA





## ZARATAMOKO UDALAREN EGOERA EKONOMIKOA

Gobernu talde honek ezarri duen gardentasun politikaren ildotik, informazio-orri txiki honen bidez, labur bada ere, udalaren egoera ekonomikoaren datu adierazgarrienak ezagutzera eman nahi ditu.

Ekainaren 18an Kontuen Batzorde Bereziak egin zuen bileran 2011ko ekitaldiaren Kontu Orokorra onetsi zuen.

**Horrela, bada, ezagutzen dugu, jada, udalaren egoera ekonomikoa 2011ko abenduaren 31ko datari erreferentzia eginez.** Gure asmoa, beraz, egoera ekonomikoaren argazki bat aurkeztea da, baina era laburrean eta argian, zenbaki eta kontzeptuetan galdu gabe. Horretarako aurrekontuen eta kontabilitatearen magnitude garrantzitsuenari begiratuko diogu: diruzaintzako gerakinari. Idazkari-Kontuhartzailearen txosten osoa udalaren web gunean, "udal aurrekontuak" atalaren barruan, ikus daiteke: [www.zaratamo.com](http://www.zaratamo.com)

### DIRUZAINZAKO GERAKINA

Diruzaintzako gerakina erakundeak izango lituzkeen fondo likidoak izango lirateke, hau da, udalak izango lukeen diru-kopurua, baldin eta kobratzeko dauden eskubideak abenduaren 31n kobratu izan balira, eta diru-bilketa horrekin eta abenduaren 31n existitzen diren fondo likidoekin, alegia, kutxan dagoen diru-kopuruarekin abenduaren 31n ordaintzeko dauden betebeharrei aurre egingo balitzaie.

Diruzaintzako gerakina urterik urte metatzen den magnitudea da. Beraz, udalak abenduaren 31n duen benetako egoera ekonomikoa ematen digu.

1	kobratzeko dauden zordunak (+) - aurrekontu korrontea: 63.379,17 - aurrekontu itxiak: 112.779,03 - bestelako eragiketak: 13.454,10	189.612,30
2	Ordaintzeko dauden hartzekodunak (-) - aurrekontu korrontea: 126.735,50 - aurrekontu itxiak: 3.863,38 - bestelako eragiketak: 318.550,93	449.149,81
3	Fondo likidoak ekitaldia amaitzean (+)	61.543,21
4	Diruzaintzako gerakina (1-2+3)	(-197.994,30)
5	Zalantzazko kobrantzaren saldoa	115.762,39
6	Ukitutako finantziazioaren haborokina	0,00
7	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako (4-5-6)	(-313.756,69)

### ZALANTZAZKO KOBRANTZA

Aurrekontuen emaitzak arautzen dituen legediak honako hau xedatzen du: "Diruzaintzako gerakina zenbatzeko, ukitutako sarrerak kontuan hartu behar izango dira eta kobratzeko dauden eta aldi berean eskuragaitzak edo eskuraezinak diren eskubideak murriztu behar izango dira arau bidez ezarritakoaren arabera".

Eskubide bat kobragaitza edo kobraezina dela pentsatzen bada ere, kontuetan ez da berez inoiz balio gabetuko".

Zalantzazko kobrantza duten kopuruen zenbatekoa 115.762,39 eurokoa da; horrek beste horrenbesteko doikuntza negatiboa eragiten dio Diruzaintzako Gerakin Osoaren zenbatekoari. 2011ko ekitaldiko likidazioak kobratzeko dauden kopurutzat hartzen ditu erantsitako taulan islatzen diren kantitateak edo behin-behinean eskubide gauzagaiz edo gauzaezintzat jo dira.



# ZARATAMOKO UDALAREN INFORMAZIO-ORRIA

1 zenbakia / 2012ko uztaila

## ZALANTZAZKO KOBRANTZA

EXE.	EKO.	DESKRIPZIOA	KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	% ZALANTZAZKO KOBRANTZA	ZALANTZAZKO KOBRANTZA
1999	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	4.154,84	100%	4.154,84
2000	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	8.711,72	100%	8.711,72
2001	51400	GURUTZALDE KOOPERATIBAKO ETXEBIZITZAK	19.930,18	100%	19.930,18
2005	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	7.123,37	100%	7.123,37
2005	28200	ERAKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA	11.662,51	100%	11.662,51
2006	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	7.255,61	100%	7.255,61
2007	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	8.370,82	100%	8.370,82
2008	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	10.381,73	100%	10.381,73
2009	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	11.361,29	100%	11.361,29
2010	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	23.826,96	50%	11.913,48
2011	31009	UR HORNIKUNTZA	20.260,86	0%	20.260,86
2011	11300	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK	29.793,67	50%	14.896,84
2011	31001	ZARAMEN BILKETA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK	11.875,52	0%	0,00
2011	31002	ESTOLDERIA	1.449,12	0%	0,00
<b>ZALANTZAZKO KOBRANTZA 2011N, GUZTIRA</b>			<b>176.158,20</b>		<b>115.762,39</b>

## DIRUZAINTZAKO GERAKIN NEGATIBOAREN ONDORIOAK

Egoera horrek eskatzen du Udalak neurriak hartzea ezinbestez eta berehala. Foru Arauak proposatzen dituen neurrien artean, betiere, udalak bere jarduerekin jarrai dezan ahalbideratzen duena, honako hau da: "Egonkortasun helburua betetzen ez duten Toki Erakundeei dagokienez, desorekan dagoen aurrekontua onartu edo likidatu edo Kontu Orokorra onartzen denetik gehienez hiru hilabeteko epearen buruan, Udaltzako areka berriro lortzeko **ekonomia eta finantza plana onartu beharko du eta, gehienez, hiru urteko epean garatu**. Plan horretan jasoko dira zein jarduera gauzatu eta zein neurri hartu gastuak eta sarrerak erregulatu, gauzatu eta kudeatzeko, aurrekontuen egonkortasuna bermatzen duen egoerara itzultzeko xedez".

Helburu hori lortzeko derrigorrezkoa da:

- **Gastu arruntaren murrizketarako neurriak hartzea**, betiere, oinarritzko udal-zerbitzuei eusteko arazorik sortu ezik.
- **Berezko baliabideak handitzea, bai ordenantza fiskalak eta bestelakoak** (bereziki, diru-bilketa lortzeko ahalmen gehien duten zergak: Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoaren Gaineko Zerga, Eraikuntza Zerga). Horrela, baliabide horiekin aurrekontuaren finantziazio handiagoa lortuko da eta bestelako diru-sarreraren, batez ere, Administrazioen ekarpenekoen, diru-sarreretatik menpekotasun txikiagoa izango da.

## EGOERARI BURUZKO GOGOETA

Nabaria da azken urteotan Zaratomoko udalak diru gehiago gastatu duela sartu duena baino. Ez dira horrenbeste urte, ongialdi ekonomikoaren garaietan, beste administrazio batzuetatik edota udal-ondarearen salmentatik, bereziki, erdietsitako diru-sarrerak erraz gainditzen zituztela udal-aurrekontuetako gastu korranteak.



# ZARATAMOKO UDALAREN INFORMAZIO-ORRIA

1 zenbakia / 2012ko uztaila

Hori zela eta, ez zen beharrianik ikusten baliabide propioen zergen egitura bizitza-kostuaren urteko gehikuntzei egokitzeko.

Ziklo ekonomikoaren aldaketarekin batera, krisi-egoerak nabarmendu egin du udalaren aurrekontuen egituraren ahulezia, bereziki, sarreraren kapituluan. Horrela, bada, Aldunditik datozen diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira, eta erakunde horretatik jasotzen dugu aurrekontuaren %50 baino gehiago. Bestalde, ongialdi ekonomikoaren garaietako soberakina xahutzerakoan eta, batez ere, kontuan hartzen badugu azken 20 urteetan zenbait udal-zerga eta tasa ez direla eguneratu, eta beste zenbaitzuk ez direla ezta indarrean jarri ere, garbi ikus dezakegu neurriak hartzera behartuta gaudela, egon dagoen defizita ez handitzeko eta udal-jarduera ahalbidetzeko.

Hartu behar ditugun neurri horien ondorioz, gerta liteke zerbitzu batzuen kalitatea horren egokia ez izatea eta beste batzuetan zerbitzuak ordaindu behar izatea, orain arte ordaindu ez badira ere. Hala ere, saiatuko gara aipatutako neurriek ez dezaten izan inolako eraginik oinarritzko zerbitzuetan eta gizarte ongizatekoetan, udal eskumenekoak ez badira ere.

## GUZTION ERANTZUKIZUNA

Udaletik baliabide guztiak eta baita ere gure ahalmenak jarri behar ditugu egoera horri buelta emateko ahalik lasterren. Baina, zeregin hori ez dagokio udal erakundeari bakarrik, herrikide guztiok daukagu erantzukizuna bai egungo egoeran, bai konponbidean.

“Zalantzazko kobrantzak”. Horrela esaten zaie herrikide batzuek udalarekiko dituzten zorrei. Zor horiek borondate ezaren ondorioz sortzen dira, hau da “ez dut ordaintzen nahi ez dudalako”. Zoritxarrez, pentsaera hori nahiko zabalduta dago zenbait sektoretan. Are gehiago, zergak ez ordaintzearen jokabidea hartzen dutenak harrokeriaz agertzen dira besteen aurrean, sarritan, tontotzat jotzen dituztela lege onez zergak ordaintzen dituztenak.

Gobernu talde honek eskura dituen baliabide guztiak abian jarriko ditu, horrelako gertaerak gehiagotan gerta ez daitezzen, zeren gure ustez jokabide hori guztiz arbuia garria baita, ez bakarrik iruzur egiten duelako, ordaintzen duten gainerako herrikideekiko guztiz insolidarioa delako ere. Gainera, zordunak zergen bidez ordaintzen diren zerbitzu publikoak ere baliatzen dira, zergak ez ordaindu arren.

Baina, pentsaera mota horren kontra ahalegin guztiak egiteaz gain, betiere, gure zergak ordaintzea jokabide zuzena dela goraipatuz, zor diren diru-kopuruak kobratu ahal izateko (Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioei jarraituz) neurriak hartu ditugu eta dagoeneko, derrigorrezko diru-bilketa abian jarri dugu.

Horren bidez, saiatuko gara zorrak eta ordaindu gabeko fakturak kobratzen, berandutze-gainordainarekin eta dagozkien interesekin, kontuen eta bestelako ondasunen enbargaraino hel gaitzkeelarik.

Deia egiten diegu zaratamoztarrei, irizpide zuzenekin jokatzeko eta guztien on denarekin gizalegezkoak zein arduratsuak diren jokabideak indartzeko.

Zaratamoko Udala

Bizkaia

